

TxiKittu

2016ko ekaina

161 zbk.

Aitziber Urkiola



**Gustuko
jardunean,
aldaparik ez**

Taxis leak



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia

-- Doktore jauna!

Ezin dut bururik altza, bakarrik egiten dut barre, ez dut
jendearekin hitz egiten, jendeak hitz egiten badit, ez diet
arretarik jartzen, kaikua ematen dut!

Zer daukat doktore jauna?

- Whatsappa!!!

Jenny



Andre bat harategira doa eta
saltzaileari esaten dio:

- Emaidazu txerri buru hori... mesedez.

- Barkatu baina hori ispilu bat da!

Aitor



- Zer esaten dio guardasol batek
makil bati?

- Arropa jantzi, kotxino!

Nara

Neska bat medikuarengana
doa eta esaten dio:

- Ezin dut lorik egin, ezin dut urik
edan, ezta jan ere. Zer daukat?

- Zuk logura, egarria eta
gosea duzu.

Dalia Berrsellam



Egun batean Jaimito
jostailudenda batan sartzen
da eta gerurretazko kanguru bat
hartzen du. Gero dendariarengana
doa eta monopoliko biletea ematen dio
ordaintzeko.

- Maitia... hau ez da benetako dirua?

- ... eta hau ez da benetako
kangurua!

June Angulo



Andereñoak galdetzen du:

-Zeinek daki zein den O letra gehien duen hitza?

- Pepitok: Osteguna

- Ez, hori ez da hitza.

- Sarak: hipopotamoa.

- Ez, hori ez ere.

-Jaimitok: Nik badakit andereño. Nire hitzik gustokoena. Gooooooooooooooooooooo!!!!

Mohamed Sid Ahmed



Aitak galdetzen dio semeari:

-Zertara jolasten ari zara?

- Arrautzetatik ateratzen zaidanarekin.

- Niri ez hitz egin horrela! Plausssst!

Umea negarrez hasten da eta esaten dio aitari:

- Ba... ez erosi kinder arrautz gehiago!!!

Luna Alves

JAJAJA

JAJAJA

Zein da Disney-ko pertsonaia beti dagoena zure ondoan?

Al-laddin

Alba Reyes


- Pepito... ez zenuke egon behar eskolan?

- Aii!!! Esaten nuen zerbait ahaztu zaidala!!

Peru Tytgat

Denborapasak

LOTU ZENBAKIAK



HIZKI-ZOPA

C	L	M	S	F	Q	H	V	N	T	C
L	H	B	D	G	J	K	U	X	A	A
E	A	E	Z	W	R	H	T	Y	W	P
W	H	X	W	F	E	J	Z	N	F	I
Z	S	D	C	B	D	W	A	I	J	T
H	V	Z	K	R	A	Y	I	K	N	A
M	U	R	X	I	V	C	X	A	M	N
Z	A	N	M	N	H	K	C	N	K	P
K	I	H	F	Z	T	Z	V	A	Z	H
Y	R	W	O	U	R	Y	K	Y	A	A
L	Z	B	X	T	A	R	M	D	F	S
O	U	J	R	U	D	K	O	B	W	M
R	E	K	W	Z	I	Y	N	W	F	A
E	P	W	E	M	F	A	E	O	J	I
N	Y	A	Q	U	Y	K	K	R	X	A

Aurkitu:

- LUKE
 - REY
 - KYLO REN
 - CAPTAIN PHASMA
 - CHEWBACCA
 - DARTH VADER
 - VODA
- Beste pertsona bat dago...? Aurkituko duzu?

STAR WARS SOPA


Lehiaketa



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Maidor Dorrio** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eraman du Maidorrek etxera. Zorionak!

7 desberdintasunak



**BIDALI ERANTZUNAK UZTAILAK 18 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.**

Izen-abizena

AdinaTel.....

Denborapasak

HIZKI HAUEKI AMAITU HITZAK

LEFN
ΔETΔE ----- (Animalia)

ΔLRN
JΔΔ ----- (Kolorea)

RKBED
ILAN ----- (Lorea)

HNORI
DRΔΔI ----- (Herria)
B

HIZKI-ZOPA

HERRIAK

L	S	B	i	B	A	R	R	A	Z	Eibar
P	E	O	H	R	Z	B	X	E	Z	Deba
J	U	K	i	R	T	U	M	O	R	Mutriku
D	U	i	E	M	L	L	L	O	H	Lasarte
Z	D	P	K	i	N	A	G	A	O	Zumaia
L	A	S	A	R	T	E	M	i	B	Hernani
H	E	R	N	A	N	i	T	A	S	Zarautz
D	E	B	A	R	J	B	O	M	T	Lekeitio
O	F	T	H	A	L	A	N	U	i	Ibarra
i	G	Z	T	U	A	R	A	Z	A	



IZENA

AITZIBER

ABIZENA

URKIOLA

JAIOTERRIA

EIBAR

JAIOTEGUNA

1991-05-08



- Itsasoa ala mendia?

Mendi ertzean dagoen hondartzatxoa edo goizean mendi buelta eta arratsaldean hondartzan etzanda egotea.

- Gozoa ala gazia?

Momentuaren arabera... baina gozoa beti gozo.

- Zure ametsetako oporrak, non?

Familia eta zapatilak badituz edonon.

- Kolore bat? Gorria.

- Zenbaki bat? 8.

- Korrika egitea ez den beste kirol bat? Bizikleta.

- Korrika egitera joateko leku bat?

Nojatik Islara kostako bidetik.

- Jatekorik gustukuena?

Barazki-menestra urdaiazpikoarekin.

- Gutxien gustatzen zaizuna?

Mariskoa.

- Miresten duzun norbait?

Nire ama.

- Nola dago mundua?

Desberdintasun sozialez beteta.

- Ze 3 gauza eramango zenituzke irla batera?

Zailegia, maleta topera eramaten dut beti.

- Birziklatzen duzu? Beti.

- Euskara osasuntsu dago?

Eibarren erdipurdi.

- Zer egin bultzatzeko?

Praktikatu eta berba egiteari beldurra kendu. Dendetara, tabernertera... sartzekoan euskaraz egitea, parkean, kirola egiterakoan... euskara erabiltzea.

- Zerk haserretzen zaitu?

Egunak 24 ordu edukitzeak.

- Zerk poztu?

Ingurukoak pozik egoteak.

- Abesti bat?

Bohemian Rhapsody (Queen).

- Nolakoa da zure egun perfektua?

Kirola, familia eta lagunak elkartzen dituen, estres gabekoa.

- Gogoan duzun egunik onena?

Eleneren (alaba) lehen irribarrea.

- Irakurri duzun azken liburua?

El médico (Noah Gordon).

- Txistek kontatu ala entzun?

Entzun, amaieratik kontaktzen hasten naiz-eta.

- Opariak egin ala jaso?

Egin eta jaso, baina inoiz ez egin gero jasotzeko.

AITZIBER URKIOLA

Aitziber Urkiola Eibarko puntako kirolaria dugu. Korrika egiteaz gainera, duatloiak eta triatloiak ere egiten ditu, oso emaitza onekin gainera. Amaren biderei jarraituz, erizaintzako ikasketak egin zituen, eta Bergarako zaharren egoitzan lanean diharduen bitartean, bi master egiten ari da: larrialdietakoa bata eta lehen arretei buruzko bestea. Kirola egiteaz gainera, antzerkera eta zinera joatea, eta bidaiatzea eta abes- tea gustatzen zaio, eta aurrera begira, gitarra eta frantsesa ondo ikastea nahiko luke. Egunak dituen 24 orduak motz gelditzen zaizkio.

Sanjuanak 2016

Badatoz oporrak!

Bai, bai, gain-gainean ditugu ondo merezitako oporrak. Azken txanpan sartu gara, eta hainbeste maite ditugun oporrak ate joka ditugu. Eibartarrok, gainera, jai-giroan hasiko ditugu aurten ere, oporrak hartu eta berehala datozelako San Juan jaiak. Ondo pasa! Urrian berriz ere ikusiko dugu elkar.



EKAINAK 16, EGUENA:

17:00: "Plaza bete poz" haur-berbena. Urkizun.

EKAINAK 17, BARIXAKUA

19:30: Dantzari Eguna, Untzagan.

20:00: Ballet Eibarres taldearen emanaldia. Coliseon.

EKAINAK 18, ZAPATUA

11:00-14:00 eta 16:00-20:00: Simulazio-jokoen tailerra (modelismoa, magia, eszenografia eta mahai-jokoak).

18:00-21:00: "L'Animalada" jolas-parkea. Urkizun.

Ekainak 19, DOMEKA

19:00: "Kolore" antzezlan, Gari, Montxo eta Jose Lontxo taldearekin. Urkizun.

19:30: Euskal Jaialdia herri-kirola erakustaldia. Untzagan.

EKAINAK 22, EGUAZTENA

17:00-20:00: Umeentzako puzgarriak. Untzagan.

17:00-20:00: Papiroflexia-tailerra eta aurpegia margotzeko tailerra. Urkizun.

19:00: "Herriko Jaiak" antzezlan, Patxin eta Potxin pailazoen eskutik. Urkizun.



Sanjuanak 2016



EKAINAK 23, EGUENA

12:00: Koadrilak elkartu eta Ustekaberekin kalejira Urkizuraino.

13:00: Lizarrako Dultzaineroei ongi etorria Estaziño kalean. Kalejira Untzagaraino.

13:30: Udaletxetik pregoia eta txupinazoa.

17:00: Klarionez tailerra: sanjuanetako munduko kartel handiena.

18:00: Lizarrako erraldoi eta buruhandien kalejira Urkizutik Untzagara.

18:00-21:00: "Crusoren lagunak" jolas-parkea. Urkizun.

19:00: "A cal y canto" kale-antzerkia. Untzagan.

19:30: MartxanGO umeentzako dantzaldia Arnorekin. Urkizun.

23:00: Dantza Garaikidearen emanaldia eta San Juan sua. Untzagan.

24:00: Nagusien Danborrada. Untzogatik hasita.



EKAINAK 24, BARIKAKUA

17:30: "Komando Parranda" kalejira. Urkizutik hasita.

19:00: Umeen Danborradaren hasiera. Urkizun.

20:30: Umeen Danborradako pregoia. Untzagan.

23:30: Soka Dantza. Untzagan.

24:00: Suzko erroberak.



EKAINAK 25, ZAPATUA

11:00-14:00 eta 18:00-21:00: "Asmakizun Feria" jolas-parkea. Urkizun.

17:00-20:00: Txapa-tailerra eta aurpegia margotzeko tailerra. Urkizun.

18:00: Lizarrako erraldoi eta buruhandien kalejira, Urkizutik.

18:00: Kalejira Africa Baj Yay taldearekin. Untzogatik hasita.

19:00: "Txatarra" antzerki-zirkoa. Untzagan.

23:00: Suzko erroberak.



ETXEKO ARTISTA

KOLORETAKO BURBUILAK

Udako oporrekin batera denbora libre dezente izaten duzue etxeke txikienek. Oraingoan, gure aiton-amonek egiten zuten moduan, jostailua gure eskuekin egingo dugu, eta erabilitako materialak edo birziklatutakoak erabiltzen baditugu, askoz hobeto!

MATERIALA

- ✓ Plastikozko botila bat
- ✓ Zinta amerikarra edo goma elastiko bat
- ✓ Galtzetin bat
- ✓ Garbitzeko xaboi
- ✓ Ura
- ✓ Jan daitekeen koloratzailea



Pultsera gardenak

Udarako apaingarri dotorea egingo duzue oso modu errazean. Plastikozko edo gomazko tutu gardenak beharko dituzue, bata bestea baino lodiagoa. Burdindegietan saltzen dituzte. Tuturik lodiena itxitura egiteko erabili. Behin eskumuturreko neurria hartuta, tutua betetzea besterik ez zaizue faltako. Edozerrekin bete ditzakezue: koloretako kotoia, bolatxoak, haria...



PAUSOAK

- 1.- Botilaren ipurdia moztuko dugu eta bertan itsatsiko dugu galtzerdia zinta amerikarra edo goma elastikoarekin.
- 2.- Ontzi batean nahastu garbitzeko xaboi pixka bat urarekin. Bertan sartuko dugu galtzerdia. Botilari tapoia kenduko diogu eta botilaren ahotik putz egingo dugu.
- 3.- Xaboi eta ur nahasketari jan daitekeen koloratzailea botatzen badiogu, koloretako burbuilak irtengo zaizkigu.



SUKALDARITZA

txokoa




PIIIZZAAAAA...

Umm... Zeini ez zaio gustatzen pizza on bat? Gehienoi seguru baietz. Bada, hona hemen, etxean modua errazean egiteko moduko errezeta.

OSAGIAK

- ✓ Baguette txiki 1 (edo gustuko duzun ogia)
- ✓ Tomate frijitua
- ✓ Gratinatzeko gazta birrindua
- ✓ York urdaiazpiko edo indioilar xerrak
- ✓ Oreganoa
- ✓ Oliba-olioa
- ✓ Gatza
- ✓ Bestelakoak: antxoak, atuna, txanpiñoiak, tipula...



PAUSOAK

- 1.- Labea berotu grill eran. Bitartean moztu ogia erditik eta jarri tomatea eta gazta.
- 2.- Ondoren urdaiazpikoa, gazta gehiago eta zuk nahi dituzun osagaiak gehitzen joan. Ez jarri larregi, ez da-eta ogitarteko bat.
- 3.- Oliba-olio pixka bat bota gainetik eta oreganoa gehitu.
- 4.- Labean sartu minutu batzuk, urre kolorea hartu eta ogia kurruskari egon arte.

ETXEAN EGINDAKO POLOAK

Ti-ta!



Bitaminak topera! Nahi duzuen frutak zatitu: piña, kiwia, gereziak, marrubiak... Nahastu 2-3 limoiren zukua urarekin eta azukrearekin (4-5 koilarakada txiki). Fruta zatiak poloak egiteko moldeetan sartu eta gehitu zukua. Kontu handiz jarri makiltxoa. 24 ordu utziko ditugu izozkailuan, handik atera eta horra hor, polo freskagarriak!



URKIZU ikastetxeko 3. eta 4. mailetako ikasleak Zarautzen izan ziren maiatzean. Zumaian itsasontzi bat hartu eta buelta ederra eman zuten. Bestalde, 4. mailakoek igeriketa-ikastaroa ere egin dute Orbeako kiroldegian. 1go ziklokoek Sastarrainera egin zuten irteera, eta 2. ziklokoak, berriz, Zarautzeko Igerain aterpetxean izan ziren.

ALDATZEko ikasleak Orion egon dira. Eguraldi onak lagundu zigun eta bi egun zoragarri pasa genituen.



LA SALLE ikastetxean antzerkiz josita ibili gara. Untzagara eta Unibertsitate Laboralera joan gara, antzerkiak ikustera baina baita guk prestatutakoak antzeztera ere. Bestalde, 6. mailakoak San Asensiora joan ziren maiatzean. Oso ondo pasatu zuten, eta nekatuta iritsi ziren Eibarrera. Enkarni

Genua eskolara etorri zitzaigun bere txotxongiloekin, "Erreka Mari Lamiaren" istorioa kontatzera. 1go mailakoak Basondon izan ziren bertako animaliekin gozaten eta kurtsoari amaiera emateko, HHko 5 urtekoen eta LHko 6. mailakoen agurrak ere izan ditugu eskolan.

ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxean, maiatzean, hainbat irteera interesgarri egin genituen. LHko txikienak Lekeition izan ziren. Ibilbide polit bat egin eta gero, hondartzan jolasteko aukera izan zuten. Nagusiek Coliseoko bertso-jaialdian hartu zuten parte eta 2. ziklokoekin batera Donostian izan ziren, Eureka Zientzia Museoan eta Txuri Urdin izotz-jauregian. Ikasturtea bukatzeaz dago eta buru belarri gabiltza lanean, jaialdia prestatzen. Eguraldiak laguntzen badu, urteroko moduan, Arratera igoko gara.



Ederto gozatu genuen Abel Barriolak **IKASTOLARA** egin zuen bisitan. Iturburu gutzia bildu zen aretoan pilotari handi honi hainbat galdera

egiteko. Geletan prestatutako galderak erantzun zituen. Bere azalpenetan argi ikusi zen euskara dela bere ama hizkuntza. Oso era atseginean bultzatu gintuen gure hizkuntza maitatzera, berak egiten duen bezala. Ondoren, ikasle batzuk barruetara jolasteko aukera izan zuten Iturburuko frontoian. Mila esker, Abel, gurekin izateagatik!

Ikasturte bukaera iritsi da eta txangoekin hasi gara, **SAN ANDRES** ikastetxeko 4 urtekoak San Pedrora joan ziren, 2. mailakoak eta 5. eta 6. mailakoak Gamarrako igerilekuetara joan ziren. Oso ondo ibili ziren!!!





BIDAIA HANDIA (6-7 URTE)

Egunen batean, egun gutxi barru, agian, itsasontzi handi-handia eraikiko dut. Ur gainean ibiliko dena itsasontziak bezala eta hegan egingo duena hegazkinek bezala, nahiz eta itsasontzia izan. Lurraren gainean ibiliko dena eta uraren azpian itsasontzi gurpildun bat bezala, urpeko ontzi bat bezala... Haur batek bidaia miragarri bat imajinatzen du. Mundua zeharkatzen du, gerran dauden herrialdeen gainetik hegan egiten du, animaliak erreskatatzen ditu... Azkenean, etxera heroi moduan itzultzeko.



FRODE ETA BESTE BIHURRIAK (8-10 URTE)

Frode eta Storm jauna (elikagaiak ia haurrak bezainbeste gorroto dituen) eraikuntza berean bizi dira, Irene TB eta Ravn andereñoarekin batera. Ganbaran izaki misteriotsu bat bizi da, eta Frode eta beste bihurriak nor den jakiten saiatuko dira.



BRAHMANAREN BEGIA (10-12 URTE)

Golden Harvest hirian udazkeneko azoka hasi berria da, eta Tom eta Josh bikiek helburu bat dute: auzoko neska gorrotagarri bat izutuko duen zerbait aurkitzea. Halako batean kristalezko begi berde bat ikusiko dute azokako saltoki artean: benetan oso egokia txantxa bat egiteko! Saltzaile zaharraren abisuak alferrik izango dira: brahmanaren begia daukanak hiru desio adieraz ditzake, baina haren lehengo jabe guztiak egoera misteriotsutan hil dira...



URTXOK EZ ZUEN NESKA IZAN NAHI (6-7 URTE)

Izeba Julik eta bere ilobek Urtxo txakurtxoa neska bat balitz bezala zaintzen dute. Baina Urtxok ez du neska izan nahi! Laster jakingo dute zer nahi duen. Maleta magikoa, letra magikoaren ondoren, beste urrats bat da haurrak irakurketan aurreratzeko egiten duen bidean.



BI SAGU POLTSIKOAN (8-10 URTE)

Sisi txango batera joango da eskolako lagunekin, lehenengo aldiz, aste oso baterako. Beldur pitin bat du ordea. Gurasoei proposatzen die berarekin joatea; baina, noski, ezinezkoa da. Sisiri gurasoak sagutxo bihurtuko balira, bizkar-zorroan sartuta eramango lituzkeela bururatzen zaio orduan. Eta halako batean, pi-pa! batean, bere burutazioa errealitate bihurtzen da: gurasoak sagu bihurtu dira...




ORKESTRA LURTARRA (10-12 URTE)

Orkestra bat sortu nahi du Manuk, eta bertan joko duten lagunak bila abiatuko da: horrela topatuko ditu Lurrinetti anaiak, bi "t"-rekin, tronpeta jotzeaz gain Presidente izeneko ahuntz bat dutenak, eskailera gainera igotzen dena; Aldika izeneko biolin-jotzaile bat, aldika besapeetan azkura izaten duena... Denen artean musikaririk zoroena eta zoragarriena sortuko dute, baita hainbat abentura bizi ere, umorez eta irudimenez beteak.

bitxikeriak



Bahametan “Txerrien Hondartza” izeneko leku bat dago. Txerri basatiak bizi dira bertan, eta itsasoan igeri egin eta hondarrean iraulka ibiltzera ohituak daude.



Antzinako Erroman pertsona dirudunak eta ospetsuak jantzen ziren soilik kolore purpuraz. Purpura koloratzailea “Bolinus brandaris” izeneko moluskutik lortzen zen eta 10.000 oskol behar izaten ziren toga bakar bat (erromatarrek erabiltzen zuten tela luze bat) egiteko.




Gauetz ikusten dugun ilargiaren argia eguzkiaren argiaren isla da.



Urbuztan (sanguijuela) batzuek 32 garun, 3 aho eta ehunka hortz dituzte.



Gominolazko zizareak arrantzan egiteko erabil daitezke.



Gameluek 94 litro ur edan ditzakete 3 minututan!



Munduko pertsonarik gehienek, iratzargailua, goizeko 07:00etan jotzeko programatzen dute.



Arratoien portaeraren inguruko azterketa batek dioenez, kilimak egiten badizkiegu arratoiek barre egiten dute, eta baita ondo pasatu ere!



Oti batzuek (langosta intsektua), belarriak oinetan dituzte.



Estatu Batuetako emakume bat parke batean jateko eta edatekorik gabe gau bat pasatzera zigortu zuten, parke hartan 35 katakume abandonatu zituelako.



Tximistek biderik motzena bilatzen dute; horregatik erortzen dira normalean zuhaitzetan edo eraikin altuetan.



Antartikan bizi diren arrain batzuk, odolean, ez izozteko proteina bat dute. Horri esker, izotzean harrapatuta gelditzen badira ere, bizi daitezke!

NAHI ZUENA LORTZEAGATIK



Elurrak, Gipuzkoa eta Bizkaia osorik bete zituen. Urrutitik ere ikusten zen elurra.

Marta, gure laguna, Oñatiko bere etxe berrian oihuka ari zen, hango iskanbila izugarriarekin Marta etxean zegoela Oñati osoa konturatu zen:

- ¡Mamaaaa!!! -oihuka eta negarrez aldi

berean -¿por qué no???

Bai, konturatu zaretenez, Martak ez zekien euskaraz hitz bat bera ere egiten, euskalduna ere ez delako.

Marta Madrilen bizi zen oso ondo eta gustura, baina bere aitak lanean arazoak izan zituelako, Oñatira joan ziren bizitzera bere amak horrela nahi zuelako.

Zergatik nahi zuen bere amak Oñatira joatea? Txikitan han bizi zelako, besterik ez.

Arraroa da, Martari inoiz ez diolako txintik ere ez esan euskaraz.

Martak 16 urte ditu baina ez da batere gaztea esaten duenez.

Luma baten antzera pisatzen du.

Bere aurpegia aingeru baten bezalakoa da eta gorputza modelo batena.

Aurpegian oso suabea den ilea du, rubioa eta pixka bat kizkurra. Begiak berdeak ditu eta beti doa makillajearekin.

Gorputza, ba, hori, modelo batena, ezer ez gehiago.

Itxuraz aingeru, baina izaeraz ez, marijakintsu bat da, beti agintzen, uf! Bestela oso jatorra da, baina gutxitan. Eta galdetuko zarete, zein da istorio hau kontatzen ari dena? Bada, ni bere mutil-laguna naiz.

Marta ez zegoen konforme zuenarekin, oraindik gehiago nahi zuen, eta zer zen nahi zuen hori?

Mobila zen, berak Samsung bat zuen, baina, berak ez, Apple bat nahi zuen.

Eta nola lortu nahi zuena?

Toperik ez bazuen bezala, oihuka eta negarrez. Gurasoak oso normalak zirenez, ezetz esan zioten. Baina bai, lortzeko aukera eman zioten, egin behar zuen bakarra, zera zen, 10 lagun berri aurkitu eta euskara ondo menperatu.

Marta, ondo pentsatu ondoren, oihuka hasi zen, baina berriro ezetz esan ziotelako, apustuari ekin zion.

Eskola eguna heldu zen, eta institutura sartu orduko, jendeak hitz egiten zuen hizkuntza, tximinoen hizkuntza zela pentsatu zuen, baina ez, euskara zen hizkuntza hura.

Liburutegira joan zen, ea ipuinetatik edo hiztegietatik hitzen bat ikasten zuen, eta bai, lortu

zuen, ama, mama zela ikasi zuen. Faena bat zen, handik bost minutura, ama esatea ahaztu zitzaiolako:

-Uf!! Esto es más difícil de lo que pensaba.

Azkenean aspertu egin zen eta oraindik ez zuen menperatzen hitz bat bera ere.

Gelara joan zen, eta han berdina, ez zion andereñoari ezer ulertzen, eta horregatik gutxinaka-gutxinaka, esaten zuena itzultzen zion. Izkinan zegoen, paretara pegatuta, eta inork ez zekien Marta zegoenik. Han zegoelako, isilik eta lotsatuta.

Azterketa zuten, eta erantzun guztiak buruz zekizkien, baina ez zuen gaintitu, erantzun guztiak gazteleraz jartzeagatik, baina ondo zituelako lau bat jarri zion.

Etxera heldu eta Marta ohean negarrez hasi zen.

Bere gurasoak, neskatoaren logelara sartu ziren, eta:

- Cariño¿ qué te pasa?

- No nada, tranquilos.

- ¿Te han mandado deberes?

- No lo sé, no le he entendido casi nada a la profesora.

Azkenean afaltzeko ordua heldu zen, baina Martak ez zuen gosarik, ohera joan nahi zuen,

Andres eta Lorea bere gurasoak kezkatuta gelditu ziren, noski, ez zioten ulertzen eta janaria ematen jarraitu zuten. Andresek ez zekien neskatoari gertatzen zitzaiona zer zen, ez zuelako inoiz horrelako ezer egin, baina Loreak bai ulertzen zion, edo gutxienez Andresek baino gehiago.

Bukaeran jogurt bat soilik jan zuen.

Ohera joan ziren baina Martak ez zuen logurarik eta liburu bat irakurtzen geratu zen, euskarazko liburu bat, baina ez zuen ezer ulertzen, begiak itxi eta bere Madrileko lagunaz gogoratzen hasi zen, orduak joan eta orduak etorri Martak lo hartu zuen.

- Ba al dakizu Martari zer gertatzen zaion?

Denak esnatu ziren eta oraingoan bai, ondo gosalduta eta pozik institutura joan zen, baina bueltan guraizeak hartu eta bere besora apuntatu zuen.

Bere gurasoak gelditu egin zuen. Egun osoa egon ziren Marta ondo zaintzen.

Hurrengo egunean, Martak amari institutura zihoala esan zion baina ez. Ibilaldi bat egitera joan zen.

Orduak eman zituen bueltak ematen eta azkenean futbol zelaira heldu zen, pixka bat gerturatu eta Lagun Onak ekipokoak entrenatzen zeuden.

Marta etxera heldu orduko lagun pilo bat zuen. Eta haiekin, egun askotan, euskara ondo menperatu zuen, eta gainera Apple bat erosi zioten bere gurasoek.

Han egin ginen gu bikote.

Aimar Osa

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...



zu margolari!